

berbarotarra



elkartea

GAZTETXOENEN URTAROA

Uda etortzeaz batera, ume eta gazteek protagonismo apartekoa hartzen dute, ekin-tzak egiteko sasoi ezin hobea da-eta. Eskaintza ere gero eta zabalagoa da. Hala bada, Berbaroko Guezan Ba! ume eta gazte taldeak, indar berriz jantzita, atek ireki dizkie haurrei, hain desio dituzten udalekuan uda ahaztezi-na igaro dezaten.



Uda Toperako gazteak San Fermin egunean

Durangoko eta inguruetakoko ume eta gazteek aukera zabala dute uda ahalik eta modu dibertigarri eta aberasgarrienean aprobetxatzeko. Helduon gustuak desberdinak diren bezalaxe, haur eta gazteenak ere halaxe direlako, Guezan Ba! ume eta gazte taldeak kolore desberdinetako udalekuak eskaini dizkie gaztetxoenei: udaleku ibiltaria, Urbasan finkoa eta Durangoko Uda Topera Kanpamentuak.

Udaleku horietatik lehen biak uztailaren 3tik 17ra bitartean eta Durangotik at egiten ari dira; era honetara gazteek Euskal Herriko txoko desberdinak ezagu-tzeko aukera paregabea izan dute. Bata ibiltaria da, Armintzatik Oriora bitartean egiten ari dena; bestea, aldiz, Urbasan kokatzen da eta inguruotan egin dituzte ekintzak.

Hirugarren udalekuak Durangon bertan dira, ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean. Udalekuak aukera ezin hobea dira umeentzat esperientzia ahaztezinak izateko, elkarrekin bizitzeko eta nor bere buruaren jabe izaten ikaste-ko. Hala bada, beste edozein hezkuntza jardueren bitartez bizi ezin daitez-

keen emozioak eskaintzen dituzte udalekuek.

Bestalde, udaleku hauen helburuetako bat euskara haurren ahotara erotea da. Aisialdiarekin lotzen dugu urtaro honetan, beraz, Durangoko eta inguruotako haur eta gazteei ez zaie ondo pasatzeko aukerarik faltako.

IANIRE JAIO GAZTE ARLOKO TEKNIKARIA

Ianire Jaio Berbaroren Gazte Arloko Teknikaria da martxotik. Sasoi honetan buru belarri dabil udalekuekin eta hurrengo ikasturterako hainbat proiektu ditu esku artean. Merezi duen ongi etorria eta konfiantza emango diogu.



Begirale eta haur zaintzaile euskaldunen lan poltsa.

Euskera biziko bada, erabili egin behar da eta horretarako, irakatsi/ikasi egin behar da; hau da, euskera ondorengoei transmititzea oso garrantzitsua da. Denok dakigu hizkuntza ez dela ikastetxeetan bakarrik ikasten; gurasoekin, aisialdian, lagunartean ere ikasten da, gero bizitzako esparru guztietan normaltasun eta naturaltasun osoz erabili ahal izateko. Seme-alabekin denbora gehiago pasatzea nahiko genukeen arren, gaur egun, umeen ardura banatuta ere, guraso askok ordutegi arazoak dituzte, eta askotan kanpoko laguntzaren beharra ere izaten da. Behar honetaz ohartuta, beste hainbat udalerriren antzera, Durangok ere ume zaintzaile euskaldunen lan poltsa izango du hemendik aurrera.

Berbaro ume zaintzaile euskaldunen lan poltsa osatzen ari da. Ume zaintzaileak, kanguruak, klase partikularrak, urtebetetze festetarako begiraleak... nahi beste aukera. Denbora asko ematen dute ume eta gazteek horrelako ekintzetan eta guk lan poltsa zabala osatu nahi dugu, ekintza bakoitzari ondo egokitutako profesionalekin.

Beraz, badakizu, euskalduna bazara eta lan hauetakoren bat ondo egingo zenukeela uste baduzu, jarri gurekin harremanetan. Orain arteko lan poltsa handitu eta kasu guztietara zehatz egokitzeko ume-zainak, begiraleak eta antzekoak behar ditugu.

Bestalde, ikasturte berriarekin batera zerbitzu honetaz baliatu nahi duzuen gurasoek, deitu trankil Berbaroko betiko telefonora, bai informazioa jasotzeko, zein izena emateko. Berbaro: 94 620 19 18.



Udako
irakurgai

Metalezko maitalea

Egundoko asmakizuna da (antzematen baduzue), ez gasolinarik, ez gasoliorik, ez antzekorik. Norberak bultzatu behar du, bihotzak, hauspoak eta hankak lagundurik eta buruaren agindupean. Hegan egitearen antzekoa izan daiteke, aske sentiarazten nau. Umetan ezagutu nuen gurpildun bikoa, nire aitari eskerrak, eta garai batean gorputz-adartzat neukan, luzapen bat balitz bezala itsatsia. Tira, ez egizu exajeratu! esaten zidan lagunak. Apologia? Beharrezkoa. Hara, beste modu batera aurkeztuko dizut.

Burdin bihurritu ugertuak, gomak, alanbreak, belaunetako urratuak, pinoia beltz-beltz eginda olioia eta bideko hondarrak nahasturik, haren usaina, jarlekuaren gogorra, ipurdiko mina... Geroago, aluminioa, titanioa, metal "nobleagoak" eta aleazioak erabiltzen hasi ziren, eta teknologia berriak. Tramankulu bikaina, hala ere... "Txirringak uda sasoirako dira" zioen film bateko izenburuak. Udarako ez ezik, urteko edozein sasoiaren erabiltzeko egokia dela esango nuke. Baina, egia esateko, abenturarako tramankulu aparta da bizikleta. Ume, gazte, aita, ama, amama..., edozeinentzat da egokia. Lekuak ezagutzeko bidaia-lagunik onenetarikoa da, duda barik. Bere gainean bazueta eta bere alboan besteetan, sentipen liluragarriak bizi daitezke: haizearen laztan leunak, edo bufada bortitzak; lanparraren umela; arratseko eguzkiaren epela; trumoi-hotsaren beldurra; naturaren usain sarkorrak... Ez gasolinarik, ez gasoliorik, isila, lagun leiala... Hor duzu, biluzik, ederra, tentagarria. Gozatu egizu udan, eta udagoiengan, eta neguan, eta udaberrian. Bera irrikan dago zure laztanak sentitzeko.

Gimondi

Nahia Zarzosarekin solasaldian

Nahia Zarzosa Aizpurua Merkatarien eta Elkarteen Hitzarmeneko Teknikaria da.

Urtero legez, uztailean eta abenduan zehar **MERKEALDIA** kartelez josita ikusten ditugu Durangoko dendak. Kanpaina honen helburua zein den jakiteko eta Durangoko komertzioetako egoeraren berri emateko Nahiarekin berba egin dugu.

B. Nola planteatzen duzue Merkealdi kanpaina hau?

N. Merkealdi kanpaina hilabete lehenago prestatzen hasten gara, +dendakoekin elkarlanean. Kartel bateratuak ateratzen ditugu. +dendakoak euren kideen artean kartelak banatzeaz arduratzen dira eta gu Durangoko gainontzeko dendetara joaten gara kartelak eskaintzera.

B. Zein da Merkealdi kanpainaren helburua?

N. Helburua merkatariak merkealdi kanpainan kartelak euskeraz jartzea da. Horretarako, merkealdi kanpaina hasi baino egun batzuk lehenago pasatzen gara dendetatik kartelak eskaintzera. Kanpaina hasita dagoenean, alperrik izaten da, normalean, kartelak banatzea, dendariak beren kartel propioak jarri dituztelako dagoeneko, eta normalean erdera hutsean. Kartela jarri eta gero, berdin zaie euskeraz edo erderaz badago, beren lehentasuna saltzea da. Ez dago euskeraren inguruan sentsibilizazio nahikorik. Hor dago ahulezia handiena.

B. Eta zure iritziz, zein da ahulezia horri aurre egiteko modua?

N. Bezeroak dira klabea. Guk, bezero euskaldun lez, euskeraz eskatu behar diogu dendariari. Agian ez dute euskeraz jakingo baina dendara sartu eta "egun on", "eskerrik asko"...besterik ez bada. Bezero euskaldunak egon badaudela jakin behar dute eta gure eskubideak ditugula, beste edozein bezeroren antzera.

B. Zelan hartzen dute dendariak egitasmo hau?

N. Dendariak pozik hartzen dituzte kartelak. Batzutan erderaz ba ote ditugun galdetzen digute, baina ezetza jasotzean ez dira gehiegi arduratzen. Egia esan nork ez daki "merkealdia" berbaren esanahia!



B. Orokorrean zein da Durangoko dendarien jarrera euskerarekiko?

N. Dendari gutxi batzuek oso jarrera aktibo eta positiboa daukate. Gehienek, egia esateko, nahiko pasiboa. Guk ematen dizkiegun kartelak pozik hartzen dituzte baina urtean zeharreko gainontzekoak erderaz jartzen dituzte. Horretan lanean gabiltza, merkatariak euskerara nola erakarri eta inplikatu asmatzen. Neguko merkealdi kanpainarako ideiak biltzen ari gara eta estrategia aldatuko dugu, ziurrenik. Baina bueno, oraindik goiz da horri buruz berba egiteko...


Dohainik ematen den zerbitzu hau urte osoan zehar dago martxan, dendariak behar dituzten kartel ezberdinak egiteko. Animatu ba, ezagutzen dituzun dendariak egitasmo honetan parte hartzera. Harremanetan jartzeko: gukeuskeraz@durango-udala.net edo 94 603 00 16 telefono zenbakia.

Oporretan ere euskera bor-bor



Guezan ba! gazte taldeak "Oporretan euskera bor-bor" lema duten kamisetak salgai jarri ditu. Aukeran kolore bi daude, laranja eta urdin argia, eta 10 eurotan saltzen dira. Eskuratu nahi izanez gero, Berbaro Elkartera jo. Pinondo Plaza 1 - 2. solairuan gaude.

"Ume kantuak" liburuaren eta CDaren 3. edizioa argitaratu du Berbarok. 10 eurotan salgai daude Berbaro Elkartearen.



Datozenak

MUSIKA KONTZERTUA

Uztailaren 15ean, Plateruena kafe Antzokian, **Zure Rokanrola** (Surfin Kaos, Kuraia, Nuuk-at, Sorkun, Potemkin, Neubat, Leihotikan, Sixtysexers, Sharon stoner, Stupenda Jones, Captain Nemo, Keike, Izate, Ikus, 717) 22:00etan - Sarrera. 10 euro, Sarrera + diskoa: 15 euro

UDA KALEAN BIZI

Uztailaren 15ean, **ANIMAZIO LABURMETRAIAK** Andra Mariako Elizpean, 22:00etan.

MUSIKA

Uztailaren 16an **Vocal Tempo Seikote Kubatarra**, Andra Mariako Elizpean, 22:00etan.

DANTZA

Uztailaren 24an **Nazioarteko Folklore Jaialdia**, Kriskitin Dantza Taldeak antolatuta, Andra Mariako Elizpean, 22:00etan.

Ikimilikili... klik euskaraz

Oraingo honetan aisiarekin lotutako helbide interesgarriak eskaintzen dizkizuegu:

www.zernola.net

Elhuyar Fundazioak gazteei zuzendutako web gunea da.

10 urte ingurutik gorako gaztetxoentzako ataria, jolastu, irakurri eta zientziaren inguruko zaletasuna hartzeko tokia.

www.aisia.net

Urtxintxak bideratutako web gunea. Gaztetxoentzako gunea da eta guraso eta hezitzaileentzat ere bai. Haur jolas eiburuzko informazioa eskaintzen da bertan,

ikastaroak eta umeen aisiarekin lotutakoak. Gazteen hizkerari buruzko ezaugarriak eta gazteentzako txat-a eta lehiaketa ere badute.

www.troka.com

Aisia eta kirola bideratzen duen enpresa baten web gunea da. Bertan kirol eskaintzak aurkezten dira, Euskal Herrikoak eta kanpokoak ere bai. Eskaintza zabala da: ibilbide proposamenak, orientazio ikastaroak, puenting rafting, surf, tirolina. Geldirik egon ezin diren gazteentzako eskaintzak.



Iruditan...



ibilaldi egunean, barbarok umeentzat antolatutako sormen tailerra.

Berberoren 16. urteurrena ospatzeko Kafe Antzokian egindako bazkaria. Ea datorren urtean Plateruena betetzen dugun!



Bazkide baten ekarpena

Batzar Nagusiaren akta irakurri ondoren, bazkide batek elkartera deitu du batetik, aktaren edukia argia izan arren, egitura aldetik, oso astuna iruditu zitzaiola esateko eta bestetik, HLA eta EBPNen siglen esanahiak ez direla inon agertzen adierazteko.

Hona hemen esanahiak:

EBPN: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen laguntzen duen plan estrategikoa da, Eusko Jaurlaritzak prestatuta eta Durangon bezala, hainbat herri-tan martxan dagoena.

HLA: Haur Literatura Aretoa Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko sortu zuen Berbarok, eta literatura lan gomendagarriak lantzea du oinarri. Adin bakoitzean, formatu ezberdinetan aurkezten zaie umei: Itzal antzerkia, Ipuin kontaketa, Liburu Erraldoia, Idazleekin elkarrizketak, Erakusketa girotua.

Eskerrik asko bazkideari egindako ekarpenagatik. Gai non-tzekoek ekarpen berri, edota aholkuak egitera animatzen zaituztegu. Mezua bidali berbaro@berbaro.com helbidera edo deitu 94 620 19 18 telefono zenbakira.